

## EGOERAREN AZTERKETA

>>>

# 1

### EUSKAL KOMUNIKABIDEAK ETA ZIBERKOMUNIKABIDEETAN EUSKARAREN ERABILERA<sup>1</sup>

Javier Díaz Noci

*Euskal Herriko Unibertsitatea*

Helbide elektronikoa: [javier.diaznoci@ehu.es](mailto:javier.diaznoci@ehu.es)

#### 1. SARRERA: GAUR EGUNGO KOMUNIKABIDE-KOPURUA ETA MOTA

Euskarazko komunikazioaren panoramak, gaur egun, denetariko komunikabideak ditu, egoera idilikoa ez den arren. Euskara hutsezko lehen egunkaria 1937an argitaratu zen, oso egoera berezian: gerra batean. Ezinezkoa da jakitea zer gertatu zitekeen gerra ez balute frankistek irabazi, egongo ote zen euskara hutsezko benetako merkatu bat, egunkari bat mantentzeko irakurleria nahiko egongo ote zen.

Euskarazko bigarren egunkaria ez zen 1990 arte argitaratu. Jaiotza oso polemikoa izan zen: Eusko Jaurlaritzak agindu zuen merkatu-ikerketak euskara hutsezko egunkari bakarrarentzako lekua zegoela zioenez, gero *Euskaldunon Egunkaria* izango zenaren ekimen pribatuak eta, behinik behin *Egunero* deitu zioten gobernu autonomoaren egitasmoak elkarren aurka borrokatu zuten. Lehenengoak gailendu zirenez, urte batzuetan Eusko Jaurlaritzak dirulaguntzak emateari uko egin zion. Egunkariaren bitzta bat-batean bukatu zen, epailearen aginduz itxi baitzen 2003an. Gaur ere badago Euskal Herri osorako euskara hutsezko egunkari bat, *Euskaldunon Egunkariaren* ondorengoa den *Berría* (2003ko udan sorturi-

koa), eta tokian tokiko beste batzuk era badaude, talde beraren barruan, *Hitza* izenekoak. 2007an *Nora* bidaia-aldizkaria argitara eman dute. Beste egitasmo batzuek ere mintzatu da, hala nola *El Diario Vascoren* enpresaren egunkari bat. Gipuzkoan bakarrik banatuko litzateke, eta abantaila batzuk edukiko lituzke: enpresak makineria propioa duenez, itxiera-ordua beranduago gerta zitekeen, eta azken orduko berriak ere inprima zitezkeen; astelehenetan agertuko zen; eta atzerriko berriemaileen sarea aprobeitza zitekeen, testuak itzuliz eta horrenbeste agentzia-albisteak erabili gabe. Oraindik ere, baina, ez da egitasmo hori ondu. Beste egunkariak euskararen portzentaia aldakorrak eskaintzen ditu, baina batek ere ez du orrialde-kopuruen %15 baino gehiago ematen.


Azken bi hamarkadetan tokiak tokiko merkatua asko indartu da. Gertu informazioa eskainiz, eta bertako hizkuntzan (batzuetan, tokian tokiko azpieuskalkia ere erabiltzen da), normalean astekariak diren aldizkari horiek guztiek oso irakurleria fidel bat bereganatu dute; gehienak ere dohainik banatzen dira eta herrietako publizitatea ere eskaintzen dute, zabalkunde geografiko handiagoko prentsan zail ager daitekeena.

Taula gisa eskaintzen ditugun datu hauek lurralde bakoitzaren pisua zein den ulertzen lagunduko digute. Duda izpirik gabe, Euskal Herriko Autonomi Erkidegoa da euskarazko aldizkari gehien dituenena, bi arrazoi-rengatik: euskararen erabilera (Nafarroako Foru Erkidegoan edo Ipar Euskal Herrian baino gehiago mintzatzen da) eta dirulaguntzen politika publikoa. Laguntza hauek, bestalde, ez dira prentsarentzako izaten, euskarazko argitalpenak sustatzeko baino.

**1 TAULA. EUSKARAZKO ALDIZKARIAK (2004)**

	Aldizkarien kopurua	Portzentaia
Araba	2	%2
Bizkaia	18	%17
Gipuzkoa	32	%31
Euskal Herria	44	%42
Nafarroa	6	%6
Ipar Euskal Herria	2	%2
<b>Oro har</b>	<b>104</b>	<b>% 100</b>

**1 IRUDIA. EUSKARAZKO ALDIZKARIAK (2004)**



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntz Politikarako Idazkaritza eta (EUSTAT). Autorearen elaborazioa.

*Azken bi hamarkadetan tokiak tokiko merkatua asko indartu da. Gertu informazioa eskainiz, eta bertako hizkuntzan (batzuetan, tokian tokiko azpieuskalkia ere erabiltzen da), normalean astekariak diren aldizkari horiek guztiek oso irakurleria fidel bat bereganatu dute.*

---

***Berria alde batera utzita, euskararen presentzia %5koa baino altuxeagoa da bakarrik Garan (%19,6) eta Deian (%6,1). Oro har, euskarak egunkarietan (Berria barne) duen bataz besteko presentzia %11,6koa da.***

Grafiko honetan ikus daitekeenez, Euskal Herri osorako aldizkariak nagusi dira: *Berria* egunkaria eta *Argia* astekaria dira zabalkunde gehien dutenak, dudarik gabe. 2004an euskaraz argitaratzen diren argitalpenen herena gipuzkoarrak ziren, gehienak tokian tokiko aldizkariak. Bizkaiko garrantzia txikiagoa da, %17. Nafarroakoa, Arabakoa eta Iparraldekoa are txikiagoa da, %2-%6.

Izan ere, komunikabideetan euskararen erabilera albokoa da. Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntz Politikarako Idazkaritzak dioenez, *Berria* alde batera utzita, euskararen presentzia %5koa baino altuxeagoa da bakarrik *Garan* (%19,6) eta *Deian* (%6,1). Oro har, euskarak egunkarietan (*Berria* barne) duen bataz besteko presentzia %11,6koa da. Zabalkundearen arabera, euskararen lekua txikiagoa ere bada (Euskal Herrian bataz bestekoa %6,4koa da). Kontsumoaren arabera, %6koa baino ez da.

Irratian euskararen presentzia %16,4koa da. Irrati nagusiak Euskadi Irratia (konbentzionala) eta Euskadi Gaztea (irradi-formula) dira, biak EITB taldearenak. Tokian tokiko edo lurraldeko beste irrati asko ere badaude, beren programazio osoa edo parte bat euskaraz eskaintzen dutenak.

Ipar Euskal Herrian, euskaraz aritzen diren hiru emisorak, batik batik, aipatu behar dira: Xiberoko Boza (Maule), Irulegiko Herri Irratia eta Gure Irratia, biak Baionakoak. Komunikabide idatzietan, *Herria* da garrantzitsuena.

Estilo-liburu batzuk argitaratu dira. Aurrekin historiko gisa, Gipuzkoak Beterriko bariatateari lehentasuna ematen zioten *Argiaren* arau ortografiko, aditz-paradigma eta deklinabideak aipatu behar dira. Baita Piarres Lafitteren *Grammaire du Navarra-labourdin litteraire* liburua, *Eskualdunaren* eta bere ondorengo den *Herriaren* estandarra.

Gaur egun, estilo-liburu nagusiak EITBrena eta *Euskaldunon Egunkariarena* (1993tik argitalpen batzuk izan zituen) eta, 2007an, *Berriarena*. Hiru hauek euskara batuari ematen diote lehentasuna. Bestela, tokian tokiko hainbat aldizkari ere beren arauak sortu dituzte, bertako euskalkia edo azpieuskalkia sendotzeko. 1990eko hamarkadaren bukaeran *Aretxagazeta* aldizkariarentzat egin zena kasu. 2007an *Goiena* taldearen agertu da. Besteren bat aipatzea merezi du: *Komunikabideetan sexismoa ekiditzeko. Estilo liburua* eta Euskal Administrazio Erakundearena, biak 2005ekoak.

Azpimarratu behar da Euskal Herrian, eta batez ere Gipuzkoan, prentsaren irakurle-kopurua Espainiako altuena dela. *Berriak* irakurleen %4 ditu. Vocento taldearen komunikabideek merkatua menperatzen dute *El Correo* eta *El Diario Vasco* egunkariek Euskal Herriko Autonomi Erkidegoko irakurleriaren %63.

**2. TAULA. EUSKAL HERRIKO AUTONOMI ERKIDEGOKO EGUNEROKO PRENTSAREN IRAKURLEAK (2006)**

	Aleak	Portzentaia
El Correo Español - El Pueblo Vasco	459.000	39
El Diario Vasco	284.000	24
Gara	100.000	8
Deia	81.000	7
Marca - Ed. País Vasco	66.000	6
Berria	53.000	4
El País - Ed País Vasco	47.000	4
El Mundo del País Vasco	38.000	3
El Mundo Deportivo	29.000	2
Noticias de Gipuzkoa	19.000	2
Diario de Noticias de Álava	16.000	1
<b>Oro har</b>	<b>1.192.000</b>	<b>100</b>

Iturria: Oficina de Justificación de la Difusión (O.J.D.) eta CIES. Estudio de Audiencia de medios de la C.A. de Euskadi

Komunikabide guztiak kontuan hartuta, idatziak zein ikus-entzunezkoak, euskararen erabilera ere minoritarioa da. Telebista da Euskal Herriko biztanleriak gehien kontsultatzen duen komunikabidea; %85ak aitortzen du egunero ikusten duela. ETB-1, euskarazko kanal publikoa, %9,9ak ikusten du. Telebistaren ondoren irratia dator. EHAEko biztanleen %57,7k entzuten du egunero. Euskarazko irratia %6,8k entzuten du, batik bat Euskadi Irratia eta Gipuzkoako Herri Irratia. Azkenik, EHAEko biztanleriaren erdiak (%49,8k) eguneroko prentsa irakurtzen du; euskaraz %2,8k baino ez. Kasu guztietan, komunikabide guztietan euskarazko komunikabideei dagokienez audientzia gehien dituen lurraldea Gipuzkoa. Telebista nagusitzen da, gipuzkoarren %18,1k euskaraz ikusten baitute.

**3. TAULA. KOMUNIKABIDEEN AUDIENTZIA, LURRALDEKA (%). 2006**

	EHAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
<b>Prentsa, oro har</b>	<b>49,8</b>	<b>48,8</b>	<b>45,5</b>	<b>57,6</b>
Berria	2,8	1,5	1,8	5,2
<b>Irratia, oro har</b>	<b>57,7</b>	<b>59,2</b>	<b>56,4</b>	<b>59,0</b>
Euskadi Irratia	3,7	1,6	1,3	8,8
Herri Irratia	3,1	0,7	2,6	4,8
<b>Telebista, oro har</b>	<b>85,0</b>	<b>81,6</b>	<b>84,9</b>	<b>86,5</b>
ETB-1	9,9	6,0	5,9	18,1

Iturria: CIES. Estudio de Audiencia de medios de la C. A. de Euskadi.

**2. ZIBERKOMUNIKABIDEAK ETA EUSKARAREN ERABILERA**

Atal honetan Euskal Herriko Erkidegoko ziberkomunikabideetan<sup>2</sup> zein den euskararen erabilera<sup>3</sup> aztertzen dugu, aspaldi daramagun lan-ibilbide bat jarraitzearen. Lan honen metodología eta egitura ikerketa-proiektu baten jarraipena da, "Impacto de Internet en los medios de comunicación de España" izenekoa, orduko Zientzia eta Tecnologia Ministerioaren laguntza batez egindakoa<sup>4</sup>. Proiektu haren emaitza nagusia liburu bat izan zen, *Cibermedios: Impacto de Internet en los medios de comunicación en*

*Ipar Euskal Herrian, euskaraz aritzen diren hiru emisora, batik bat, aipatu behar dira: Xiberoko Boza (Maule), Irulegiko Herri Irratia eta Gure Irratia, biak Baionakoak. Komunikabide idatzietan, Herria da garrantzitsuena.*

*EHAeko biztanleriaren erdiak (%49,8k) eguneroko prentsa irakurtzen du; euskaraz %2,8k baino ez.*

---

**Espainiako ziberkomunikabideen hiru herenak (%76, zehazki) gaztelaniaz soilik idatzita daude. Bestelako hiru hizkuntza ofizialetan agertzen zirenak %16 ziren: katalanez (bertan Valentziako barrietatea sartzen dugu, izen ofizial ezberdina badu ere), gailegoz eta euskaraz idatzitakoak, alegia. Gainontzekoak.**

*España*<sup>5</sup>. Ikerketa eta liburu haietan, beste hainbat gauzen artean, Espainian mintzatzen diren hizkuntzen egoera zein zen ziberkomunikabideetan adierazten zen; bai hizkuntza ofizialak, bai beste estatus juridiko bat dutenak (garai hartan, asturierera eta aragoiera, batik bat; baita *judezmoa* ere, esaterako).

Ikerketa haren arabera, Espainiako ziberkomunikabideen hiru herenak (%76, zehazki) gaztelaniaz soilik idatzita daude<sup>6</sup>. Bestelako hiru hizkuntza ofizialetan agertzen zirenak %16 ziren: katalanez (bertan Valentziako barrietatea sartzen dugu, izen ofizial ezberdina badu ere), gailegoz eta euskaraz idatzitakoak, alegia. Gainontzekoak beste hizkuntza batzuetan agertzen ziren, Penintsulakoak (asturieraz, aranera, aragoieraz) eta kanpokoak (batik bat, etorkinentzat zuzenduriko komunikabideak). Orduan ikertutako urteetan (2002-2005) 116 ziberkomunikabide aurkitu eta katalogatu genituen Euskal Herriko Autonomi Erkidegoan. Horietatik, 62 (%53,4) gaztelaniaz agertzen ziren, besteek (%46,9) aldiz, euskara erabiltzen zuten neurri batean zein bestean.


Hurrengo urteetan burutu genuen ikerketan, aurrekoaren segida izan zena, EHAEko ziberkomunikabideak soilik aztertzekeo alegia, datu basea berri genduen, komunikabide berriak sartuz, argitaratzen ez zirenak kenduz, eta ezaugarriak berri ere aztertuz. Datu base hartan bildu genituen datuez baliatuz, saiaturiko gara adierazten zeintzuk diren euskaraz adierazten den ziberkazetaritzaren komunikazioaren ezaugarriak.

## **2.1 Euskararen presentzia interneteko ziberkomunikabideetan**

Datu base horien arabera, Euskal Herriko Autonomi Erkidegoan 186 ziberkomunikabide zeuden. Horietatik, 60 elebidunak ziren; alegia, batez ere gaztelaniaz eskaintzen ziren, eta euskarari leku (eta zeregin) marjinala eskaintzen zitzaion. Egunkari gehienak (inprimatuak bezalaxe) hala-koak dira: *El Correo Digital*, *Diario Vasco*, *Deia*, *Gara*, *Diario de Noticias de Álava* eta *Noticias de Gipuzkoa*. Euskaraz soilik agertzen diren egunkari digitalak *Berria*, eta *Hitzak* dira. Baita *Goiena.net* (egunkaritzat hartzen badugu, behintzat). Beste modu batez esanda, EHAK-ko ziberkomunikabideen %70 batez ere gaztelaniaz ari da.

Konparagarriak ez badira ere —komunikabide bakoitzaren erabil-tzaile-kopurua zenbatekoa den jakin behar, eta hori posible da AIMC edo OJDren kontrola onartzen dutena— euskaldun osoen portzentaje berdi-nekoak dira (EHAEan). Euskal Herriko Hirugarren Inkesta Soziolinguistikokoaren arabera, EHAEko biztanleen %29,4 elebiduna da euskaraz eta gaztelaniaz (hau da, bi hizkuntzez mintzatzeko gai da), eta %59k gaztelaniaz baino ez du hitz egiten. Inkesta horren arabera (EUSTAT<sup>7</sup>) EHAEko biztanleen %20aren ama hizkuntza euskara da eta horixe da senitartean gehien erabiltzen dutena.

## 2. IRUDIA. GAZTELANIAZ ALA EUSKARAZ AGERTZEN DIREN ZIBERKOMUNIKABIDEAK




Iturria: autorearen elaborazioa

Datu hau ere ez da harrigarria: euskara erabiltzen duten ziberkomunikabideen artean, erdia gipuzkoarrak dira (50 komunikabide; Donostian 22), Bilbon Euskal Herriko biztanleriaren erdia biltzen bada ere (2.124.846 lagun 2006an, Eusko Jaurlaritzaren arabera). Adierazpena erraza da: Gipuzkoan daude euskaldunen %40. Bizkaian 45 ziberkomunikabide agertzen dira (17 Bilbon). Araba da euskarazko ziberkomunikabide gutxien dituen: 5 baino ez.

## 2.2 Euskarazko komunikabideen tipologia

Lehenengo datu bat: informazio orokorreko eta informazio espezializatuko ziberkomunikabideen oreka. Informazio orokorreko 45 ziberkomunikabide aurkitu ditugu; informazio espezializatukoak, beste horrenbeste. Beste kategoria bat kontuan hartu dugu: tokian tokiko komunikabideak, informazio orokorrekoak baina esparru geografikoaren arabera espezializatuak: herria edo, Internet batik bat, eskualdea. Adibide bat *Goiena.net* dugu, Deba Goieneko aldizkaria, bertako komunikabide idatzi zein ikusentzunezkoetatik sortua. Tokian tokiko komunikabideetan erabiltzen da, portzentaje aldakorretan, euskalkia edo azpieuskalkia. Tokian tokiko komunikabideak euskaraz erabiltzen dutenen laurdena dira, ia-ia. Gehienak, euskara hutsezkoak, gainera.

## 3. IRUDIA. EUSKARAZKO ZIBERKOMUNIKABIDEEN TIPOLOGIA




Euskarazko ziberkomunikabideen tipologia: %39, informazio orokorrekoak; %39, informazio espezializatukoak; %22, tokian tokikoak.

*Euskal Herriko Autonomi Erkidegoan 186 ziberkomunikabide zeuden. Horietatik, 60 elebidunak ziren; alegia, batez ere gaztelaniaz eskaintzen ziren, eta euskarari leku (eta zeregin) marjinala eskaintzen zitzaion. Egunkari gehienak (inprimatuak bezalaxe) halakoak dira: El Correo Digital, Diario Vasco, Deia.*

**Tokian tokiko komunikabideetan erabiltzen da, portzentaje aldakorretan, euskalkia edo azpieuskalkia. Tokian tokiko komunikabideak euskaraz erabiltzen dutenen laurdena dira, ia-ia. Gehienak, euskara hutsezkoak, gainera.**


#### 4. IRUDIA. BESTE EUSKARRI BAT DUTEN ZIBERKOMUNIKABIDEAK



Beste euskarri bat duten ziberkomunikabideak: %77 beste komunikabide (idatzi zein ikus-entzunezko) batetik dator. Iturria: autorearen erabilera.

Euskarazko ziberkomunikabide gehienak aldizkariak dira. Beste 19 ziberkomunikabide bestelakoak dira, alegia, ez dira *newsmagazineak*, beste 19 irratiak dira (inportanteena, Euskadi Irradia, EITBkoa), 13 berripaperak dira (Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabakoak, Eusko Legebiltzarrarena, *Euskal Herriko Aldizkari Ofiziala* ere barne, legez elebidunak baitira) eta 9 telebista (ofizial bat, Euskal Telebista, eta tokian tokiko batzuk).

#### 5. IRUDIA. ZIBERKOMUNIKABIDEEN TIPOAK




Ziberkomunikabideen tipoak: %44 aldizkariak dira, %18 egunkariak, %18 irratiak, %12 boletin edo berripaperak eta %8 telebistak. Iturria: autorearen erabilera

Aldizkatasunari dagokionez, nahiago izan dugu ziberkomunikabideen berritze-erritmoa; hala era, nola gehienak beste komunikabide (aldizkako) batetik datozen, normalean inprimatutako argitalpena oinarritzat hartzen da eta haren gainetik eduki berriak gehitzen dira hurrengo argitalpen idatzia osatu arte; hori da, adibidez, egunkariak egiten dutena. Datu zehatzak hauexek dira: 20 komunikabide etengabe berritzen dira, eguneroko oinarrian batik bat. 16 egunero berritzen dira<sup>8</sup>; 9 ziberkomunikabide astero berritzen dira; 10 hilero; 2 komunikabide bi hilero; 4 hiru hilero; 2 sei hilero eta beste 2 urterero. Izan ere, erdia baino gehixeago egunero berritzen dira behintzat.

#### 4. TAULA. BERRITZE-ERRITMOA EUSKARAZKO ZIBERKOMUNIKABIDEETAN

	Ziberkomunikabideak	Portzentajea
Etengabekoa		%31
Egunerokoa		%25
Asterokoa		%14
Hilerokoa		%15
Bi hilerokoa		%3
Hiru hilerokoa		%6
Sei hilerokoa		%3
Urterokoa		%3

## 6. IRUDIA. BERRITZE-ERRITMOA EUSKARAZKO ZIBERKOMUNIKABIDEETAN



Iturria: autorearen elaborazioa.

Normalean, elkarte mugatuak dira (SL; 11 komunikabide). Bi bakarrik dira elkarte anonimoak (SA). Gainontzekoak beste forma juridikoak erabiltzen dituzte: fundazioak, kooperatibak, eta abar. Azpimarratzekoa da euskarazko 32 komunikabidek bakarrik publizitatea onartzen dutela, %28 alegia. Hainbat faktorek adierazten dute hori: alde batetik, badaude komunikabide amateurak, nolabait esateko. Baina, gure ustez, arrazoi nagusia diru publikoz lagundutako merkatua dela. 2004an, adibidez, Eusko Jaurlaritzak 3.794.644 euro eman zuen euskaraz argitalpena sustatzeko. 2006an, aldiz, 4.750.000 euro eman zituen: 1.998.500 euro (%42) aldizkariarentzat, %39 egunkariarentzat, 500.000 euro telebistetarako, %6 irratiarentzat eta, azkenik, 98.100 euro bakarrik argitalpen digitalarentzat eta agentziarentzat (%2). Jakina, kontuan hartu behar da dirulaguntza jasotzen duten aldizkari, egunkari, irrati eta telebista gehienek webgune bana dutela, eta hara doala dirulaguntzaren zati bat.

Badago beste datu bat azpimarratu beharrekoa: badaude hainbat komunikabide propio interneterako sortuak. Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntz Politikarako Idazkaritzaren arabera (*Euskararen Berripapera*, 156. zenbakia) honako hauek dira: *Bizkaie*, *Sustatu*, *Erabili.com*, *Zientzia.net*, *Kontai-zu.net*, *AlbisteakSMS.com*, *Sareko Argia* (eduki asko *Argia* astekariarekin konpartitzen badu ere), *Zuredirua.com*, *Nontzeberri* eta *Gaurkoenpresa.com*.

### 2.3 Ziberkomunikabideek nola erabiltzen dituzte edizio digitalaren baliabideak?

Komunikabide digitalen ezaugarri berezkoak nola erabiltzen dituzten euskarazko komunikabideek neurtzen saiatu gara. Adibidez, elkarreragina. Argi dago ia komunikabide guztiek posta elektronikoen konturen bat dutela, normalean, orokorrak, ez ataletara edo kazetari bakoitzari mezuak bidaltzeko. Bestelako baliabideak urriagoak dira: 33 euskarazko ziberkomunikabidek foroak dituzte; hiruk *chat* bat dute; 16k elkarrizketa interaktiboak dituzte; batek ere ez eztabaida-talderik. Hurrengo irudietan ikus daitekeenez, baliabide bakoitza eskaintzen duten komunikabideak konparatu ditugu, eta horrela argi ageri da euskarazko ziberkomunikabideetan elkarreragina baxua dela. Figura honetan barra luzeetan agertzen da baliabide hau erabiltzen ez duten komunikabide-kopurua,


**Euskarazko ziberkomunikabide gehienak aldizkariak dira. Beste 19 ziberkomunikabide bestelakoak dira, alegia, ez dira newsmagazineak, beste 19 irratiak dira (inportanteena, Euskadi Irradia, EITBkoa), 13 berripaperak dira.**



*Azpimarratzekoa da euskarazko 32 komunikabidek bakarrik publizitatea onartzen dutela, %28 alegia. Hainbat faktorek adierazten dute hori: alde batetik, badaude komunikabide amateurrak, nolabait esateko. Baina, gure ustez, arrazoi nagusia diru publikoz lagundutako merkatur del.*


eta barra motzetan aldiz erabiltzen dutenak. Hurrengo figuretan portzentualki adierazten dugu baliabide bakoitzaren erabilera. Guztietan, portzentaje handiena da beti foroak, *chat*-ak edo inkesta interaktiboak erabiltzen ez dituen komunikabideena.

#### 7. IRUDIA. BALIABIDE INTERAKTIBOEN ERABILERA




Iturria: autorearen elaborazioa.

#### 8. IRUDIA. FOROEN ERABILERA




Iturria: autorearen erabilera

#### 9. IRUDIA. CHAT-EN ERABILERA



Chat-en erabilera. Iturria: autorearen erabilera

#### 9. IRUDIA. INKESTA INTERAKTIBOEN ERABILERA




Iturria: autorearen erabilera

Multimediatasuna euskarazko komunikabideetan ere mugatua da. Testu bidezko informazioaren nagusitasuna erabatekoa da. Ezta interneten dauden euskarazko irriti guztiek ere soinua eskaintzen dute: zortzik baino ez. Beste 13 ziberkomunikabidek osagarri autoexekutagarriak eskaintzen


dituzte, eta 16k Flash-ez egindako grafikoak. Hurrengo grafikoetan barra luzeenak baliabide horiek erabiltzen ez dituzten komunikabideek kopurua agertzen da; beheko barrak, motzenak (bigarren sorta) baliabideok erabiltzen dituztenok.

**10. IRUDIA. FLASH ETA SOINUAREN ERABILERA**



Iturria: autorearen erabilera

**11. IRUDIA. SOINUA EUSKARAZKO ZIBERKOMUNIKABIDEETAN**



Soinua euskarazko ziberkomunikabideetan. %8k bakarrik erabiltzen dute.  
Iturria: autorearen erabilera

**33 euskarazko ziberkomunikabidek foroak dituzte; hiruk chat bat dute; 16k elkarrizketa interaktiboak dituzte; batek ere ez eztabaidataldetik. Argi ageri da euskarazko ziberkomunikabideetan elkarreragina baxua dela.**

**2.4 Euskalkien eta tokian tokiko barietateen erabilera**

Euskarak, esan beharrik ez dago, dialekto edo euskalki batzuk, barietate ezberdinak alegiak, baditu. Horietatik batzuek lortu dute historian zehar barietate idatzia edo "literarioaren" estatusa (Campión), beti ere kodetze baten bidez prestigiozko hizkuntzaren mailara iritsi dira. Horretaz hitz egin zuen bere doktore-tesian Koldo Zuazok (Zuazo, 1988), eta ordudunik euskara batua eta euskalkiei buruzko artikulua eta liburuak argitaratu ditu. Euskarak badu akademia, Euskaltzaindia, 1919tik, eta bere kide asko, bide batez esanda, orduko euskarazko aldizkarien edo erdal egunkarien euskal atalen arduradunen artean hautatu ziren. Komunikabideek eta, oro har, kazetaritzak barietate bateratuak sortzeko edo laguntzeko orduan izan duten garrantziaz Díaz Noci irakaslea ere aritu da (Díaz Noci, 1994, 2002). Euskara batua sortu arte (Euskaltzaindiaren 1968ko bileran hasitako prozesua), eztabaidatu zen zer erdu jarraitu behar zen, ea euskalki *literario* bat aukeratu (Sarako eskolaren lapurtera klasikoa, Beterriko gipuzkera —Larramendirena, alegia—, beste batzuen artean)

**Esan daiteke ziberkomunikabideetan baino are gehiago erabiltzen dela euskara batua komunikabide idatzietan edo ikus-entzunezkoetan. Azken hauetan, elkarrizketetan batik bat, tokian tokiko formak askoz gehiago erabiltzen dira ahozko komunikazioan.**

edo eredu berri bat sortu: Resurrección María de Azkueren gipuzkera osotua edo aranisten (Ebaristo Bustintza buru zela) *euzkera garbija* (gure egunetan *hiperbizkaiera* izena eman dio eredu horri Itziar Laka irakasleak) edota *Herria* aldizkarian erabiltzen zen nafarrera-lapurtera literarioa, Piarres Lafittek kodetua. Azkenik, dakigunez, ortografia, flexioa eta aditza bateratu ziren, erdiko euskalkietan oinarritzat hartuta.

Euskara batua da gaur komunikabide gehienek, eta ziberkomunikabide gehienek ere, erabiltzen duten barietate idatzia: euskara batua; behintzat, oso joera sendo eta orokorra da EHAEn eta Nafarroako Foru Erkidegoan. Oro har, esan daiteke ziberkomunikabideetan baino are gehiago erabiltzen dela euskara batua komunikabide idatzietan edo ikus-entzunezkoetan. Azken hauetan, elkarrizketetan batik bat, tokian tokiko formak askoz gehiago erabiltzen dira ahozko komunikazioan.

Hala eta guztiz ere, gehiago erabiltzen dute batua jatorrizko komunikabideek (esaterako, aldizkariak) haiengandik sortutako ziberkomunikabideek baino. Asmotan, hori gertatzen da jatorrizko komunikabide idatziek bertako barietatea kodetzen hasteko lana egin badute ere. *Goiena.net*, esaterako. Ziberkomunikabide honen barietate nagusi-nagusia euskara batua da, Deba Goieneko tokian tokiko komunikabide idatzi eta ikus-entzunezkoetatik baldin badator ere. Jatorrizko komunikabide askok hango bizkaieraren (edo, nahiago bada ere, hizkuntz kontzeptuak eta administratiboak ez nahastearren, Deba Goiena Gipuzkoa baita, Mendebaldeko barietatea) formak erabiltzen zituzten.

## 12. IRUDIA. GOIENA.NET

The screenshot shows the Goiena.net website. At the top, there is a navigation menu with links: Sarrera, Antzuola, Aramala, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga, Oñati, Debagoiena. The main content area is divided into two columns. The left column contains two news items. The first is from 'DEBAGOIENA' dated 2008/08/05 09:13, titled 'Abuztuak ordutegi aldaketak ekarri ditu Debagoieneko udal zerbitzuetan'. The second is from 'BERGARA' dated 2008/08/05 23:28, titled '33 akuarelistaren lanak ikusgai Aroztegi aretoan'. The right column contains two sections: 'BLOGAK' with a list of articles including 'NIRE BEGIETAK UDALKEJATIK BUELTAN' and 'LOKATZA XXII. Iruñerriko Itzulia', and 'BLOG KOMERTZIALAK' with articles like 'OSKAR VITORIA, BITXIGILE ARTISALAK' and 'BOLU SUKALDEAK Norma - armairuak'. There are also small images and video thumbnails associated with these articles.

Euskara batua zeharo nagusitu da, hala ere, herri bakoitzeko barietateak nola edo hala, neurri batean zein bestean, mantendu izan dira tokian tokiko aldizkarietan: *Berrigara* (Bergara), *Kontzejupetik* (Oñati), *Arrasate Press* (Mondragón), eta abar. Badago salbuespen bat, hain zuzen ere *Goienan* sartu ez zen komunikabide bat: *Eibarko ...eta kitto!*. Bertako euskal

barietatearen kodetzean tradizio luzeko herria da Eibar, 1965-1996an Toribio Etxebarria bere *Flexiones verbales y lexicón del euskera dialectal de Eibar* liburua argitaratu baitzen. Orduan ez zegoen Euskal Filologiari buruzko lizentziaturarik; ikasketa horiek sortu ondoren, zonalde, eskualde eta herri-hiri gehienetan filologoen bertako barietatei buruzko ikerketak egin dituzte. Interes zientifikoaz aparte, barietate horien berreskurapena ere berpiztu da, kasu askotan hala “estandarizazio” bat edo usu jasotarako proposamen gramatikalizatuak sortuz. Esan bezala, kazetaritzak hizkuntza estandarizatuak erabili, bilatu edota sortzen ditu; herri edo eskualde horietan komunikabide lokalak baldin badaude, bertako barietatea erabiltzeko ahaleginak egiten dira.

### 13. IRUDIA. ...ETA KITTO!, EIBAR



Egia esan, batua ez den beste barietaterik erabiltzen duten komunikabideek, interneten behintzat, Mendebaleko formak (bizkaiera) bultzatzen dituzte. *Egunkaria.com*, *Euskaldunon Egunkariaren* bertsio digitalak, 2001eko uztailan Sarean jarri zuen *Bizkaia* gehigarria, eta gainera, euskalki horretan hobeto idazteko hainbat tresna (gehigarrian erabiltzen zen ereduak filologo batzuen kritikak jaso bazituen ere). Juan del Olmo Entutegi Nazionalako instrukzio-epailearen autoak *Egunkaria* itxi zuenean, *Bizkaia* gehigarria ere eten egin zuen; *Berriak* ez du bizkaierarengan interesa berreskuratu. Nafarroako edo Gipuzkoako euskalkiak eta barietateak ez dira interneteko komunikabideetan erabiltzen -jatorrizko argitalpenetan ez bezala, bide batez esanda-, salbuespen batekin, hain zuzen ere bizkaiera eta gipuzkeraren arteko isoglosan dagoen herri bateko ziberkomunikabide batean: Mutrikuko *Atxukale.com*. Izan ere, interneten estilo-liburu txiki bat eskaintzen dute, *Hizkeria lantzen*, bertako barietatean idazteko Udalak argitaratutakoa.

*Euskara batua zeharo nagusitu da, hala ere, herri bakoitzeko barietateak nola edo hala, neurri batean zein bestean, mantendu izan dira tokian tokiko aldizkarietan.*

*Kazetaritzak hizkuntza estandarizatuak erabili, bilatu edota sortzen ditu; herri edo eskualde horietan komunikabide lokalak baldin badaude, bertako barietatea erabiltzeko ahaleginak egiten dira.*

**Bizkaierazko barietateak erabiltzen dituzten ziberkomunikabideak dira batez ere kostaldeko herrietako tokian tokiko irratietatik datozenak: Arrakala Irratia, esate baterako. Ahozko hizkeraren laburdurak eta fonetismoak erreproduzitzen saiatzen den eredu bat dugu.**

Jakina, batua erabiltzailearen kontra-kontrakoa da Euskerazaintza-Euskeraren Erri Academia [sic, bere garaian komunistatzat hartzen zen 'h'rik gabe], academia alternatibo bat, euskara batua hedatzearen aurkako idazle zaharrek sortua. Martin Olazar orduko bere presidenteak Euskerazaintzaren aldizkariari buruzko manifestu bat argitaratu zuen, *Euskerazaintza* (Gipuzkoako merkatura zuzendua eta gipuzkeraz idatzia) eta *Zer*, bizkaierazkoa eta Bizkairakoa. Euskerazaintzak badu webgune bat: <http://www.euskerazaintza.org>. Bertan badaude aldizkariak pdf-an; interneti buruz badago artikulua bat, LIX. Zenbakian (2007), Ana Uriarterena.

Bizkaierazko barietateak erabiltzen dituzten ziberkomunikabideak dira batez ere kostaldeko herrietako tokian tokiko irratietatik datozenak: *Arrakala Irratia*, esate baterako. Ahozko hizkeraren laburdurak eta fonetismoak erreproduzitzen saiatzen den eredu bat dugu: *topadou topatu dogu* esan beharrean, *barrijak* esan *barriak* hitzaren orde, eta abar.

Lehen aipatu dugun Eibarko *...eta kitto*, aldizkariak bere orrialde batzuetan erabiltzen zuen antzeko eredia da. Nolabait, XIX. mendeko *Peru Abarka* liburu ospetsuaren egilea zen Juan Antonio Mogelek proposatzen zuena: orduan eredu nagusia zen gipuzkera zentraletik ahalik eta gehien alden. *...eta kitto!*-n bertako aditz-laguntzaileak erabiltzen ziren hainbat testutan (*dabe*, *detse* –bizkaiera normalizatuan, *deutse*—) eta hala-koko formak: *bidia* eta ez *bidea*, *gidarixendako* eta ez *gidariendako*. Hainbat grafia mantentzen ziren: *ll* eta *ñ*, batuaz erabiltzen ez direnak. Laburdurak, hala ere, ez ziren erabiltzen. Azken boladan, hala ere, batua da nagusi.

#### 14. IRUDIA. 11BARRI, LEA-ARTIBAI

The screenshot shows the website for '11barri' (Lea-Artibai eta Mutriku). The main headline is 'Hiru herri, jai bat eta giro desberdinak' (Three towns, one festival and a different atmosphere), dated 2008-07-26 at 18:33:25. The article text mentions 'Ebebarriko bazkari herrikoiak udalebe aurreko zelaia alaitu eta herritarrez betetzea lortu du, beste behin ere.' (The Ebebarri community meals have brightened the summer field and filled it with citizens, once again.) It also mentions 'Herriaren arteko bazkariak, dantzek eta era askotako soinuk Santiago eta Santa Ana Jailetako egitarauari eutsi zieten atzo Etxebarrian, Ipasterren eta Ondarroan.' (Community meals, dances and various sounds followed the program in Santiago and Santa Ana last night in Etxebarria, Ipasterren and Ondarroa.)

Other news items on the page include 'Irakaskuntza - Hartu Ingelesa Irakaslea Lekoiton' (2008-06-19) and 'Garajeak - Errentan eman 270 metro karratutako lokala' (2008-06-17).

## ■ Elkarrizketa Digitalak



### Ana Elordi

Aktorea

2008-07-24 - 11:00

Ana Elordi ETB 1-eko 'Noaia' saioko aktore ondarrutarra Hitzako erredakzioan egongo da webguneko galderari erantzuten.

Erantzundako galderak:

- 1 **G. Zer egiten jatzu erosoago: ondarrutarrez berba egitea ala batuaz, antzeterakoan? Bixiori**  
E. Ondarrutarrez naturala da antzeten dot baiñe segun eta zein personaje den erosogua sentiuten naz era batea edo bestea.

---

- 2 **G. Aktore moduan daukazu ametsa zein da? Iraxe**  
E. Ametsa edo nahixe nitzako da antzeten jarraitzi bizitza guztin proiektu interesantitan.

---

- 3 **G. Noaia grabatzerakoan, ondo pasatzen duzue aktoreok ezta? Xalau**  
E. Bai ondo pasaten dou baiñe dana be ez da toma faltutan agertzen dizen barrik eta kabondeu, zeuek pentsa baik ez douela biharra eitten!

---

- 4 **G. Zer duzu nahiago, plato baten lan egin edo antzerkian? Ondarrutarra**  
E. Gauza bikak egixe esan. Telebistan nabillenin eszenatokiko "pabu" eukitten dot eta denbori banaz telebistan zeezer ein baik be desiaten egoten naz... dana nahi dot!

11barri, Lea-Artibai. Elkarrizketetan tokian tokiko euskara erabiltzen da

Zonaldeko beste ziberkomunikabide batzuek, aldiz, bizkaiera normalizatuagoa bat erabiltzen dute, batuarekin batera: Lea-Artibaiko 11Barri, eta Arranondo.

## 15. IRUDIA. ARRANONDO.COM, ONDARROA

Beste ziberkomunikabide batzuek oso bizkaiera estandarra edo "batua" erabiltzen dute : Bizkaia Irratiaren webgunearen kasua dugu, Bizkaia Irratia on line, eta baita Bizkaiko Foru Aldundiak sorturiko webgunea, Bizkaie! Bizkaierazko Aldizkari Elektronikoa, bertako euskalkia sustatzeko.

Euskaraz erabiltzen duten ziberkomunikabide gehienak egunkariak dira edo oinarri horretan berritzen dituzten euren edukiak.

Batua ez diren bestelako euskalkiak (normalizazio eta gramatikalizazio gradua ezberdina da) mendebaleko hizkuntz eremukoak dira edota Bizkian dute egoitza soziala.

## 16. IRUDIA. BIZKAIA IRRATIA

The screenshot shows the Bizkaia Irratia website interface. At the top, it says 'Eguaztena, 2008ko abuztuak 6'. The main navigation menu includes: AURKEZPENNA, PROGRAMAZIÓNA, FREKUENTZIÁK, PUBLIZIÓDE TARDIÁK, ALISTEÁK, BILBO-SUZIRIAK, LABUR-LABUR, CETXO, ONDARRADA, PORTUGALETE, and BAKIDJ. A central graphic shows a frequency meter at 97.3 and a map of Bizkaia with 'zornotza yelorio' and 'BIZKAIA irratia on-line' logo. On the right, there's a 'BIZKAIA IRRATIKO BARRIAK' section with 'GURE ARGAZTIAK' and a photo of Ricardo Arregi Sarria. A 'Bisitak: 59514' counter is visible at the bottom right.

Azkenik, beste ziberkomunikabide batzuek oso bizkaiera estandarra edo "batua" erabiltzen dute<sup>9</sup>: Bizkaia Irratiaren webgunearen kasua dugu, *Bizkaia Irratia on line*, eta baita Bizkaiko Foru Aldundiak sorturiko webgunea, *Bizkaie! Bizkaierazko Aldizkari Elektronikoa*, bertako euskalkia sustatzeko.

## 17. IRUDIA. BIZKAIE!, BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO ALDIZKARIA

The screenshot shows the Bizkaie! website. The top banner says 'orain 50era bizkaie!' with a search bar. The main content area features a news article titled 'Ahots aniztasunean - A più Voci' topaketea egingo da abuztuaren 5etik 20ra Gernika-Lumón'. The article text mentions 'Ahots aniztasunean - A più Voci' Gernika eta Gazoldo degli Ippoliti urien arteko kultur topaketea da. The left sidebar has a navigation menu: HASIEREA, AGENDA, ANTIXINA-BARRI, AURKIDIDEA, BARRIKETAN, BEGI-BETEGARRI, BERTSOTAN, BIDAIDE, BOTAZINOAK, EUSKALDUNOK MUNDUAN, EUSKERA BERRAIGAI, JAN-EDJANAK, JO BEGIZ, KULTUREA, MUSIKEA, PIL-PILEAN, SAREAN, ZINEA. The right sidebar includes 'BARRIKETAN', 'BLOGAK', 'AGENDA', 'EGURALDIA', and 'euskalmet'.

### 3. KONKLUSIOAK

Euskal Herriko ziberkomunikabide gehienek euskara erabiltzen dute; horietatik, %30k modu esanguratsu batean egiten du. Bide batez esanda, hizkuntzak berak duen hizlarien portzentaia da.

- Lurralde euskaldunetan, Gipuzkoan eta, neurri txikiago batean, Bizkaian, sortu dira euskarazko ziberkomunikabide gehienak (%90). Euskaraz hitz egiten duen hiruburu bakarra den Donostiaren pisua ere oso esanguratsua da.

- Euskaraz erabiltzen duten ziberkomunikabide gehienak egunkariak dira edo oinarri horretan berritzen dituzten euren edukiak. Euskaldun gehien dituzten eskualdeetako egunkariak nagusitzen dira. Oso mugimendu gipuzkoarra da, bide batez esanda. *Goiena.net*, Deba Goienako tokian tokiko komunikabide inprimatu edo ikus-entzunezko batzuetan oinarritutako webgunea ere oso garrantzitsua da.

- Euskarazko komunikabide gehienak errebistak dira, magazineak. Gehienak, tokian tokikoak. Euskalkiak erabiltzen dituztenak hauexek dira. Bestelako komunikabide guztiek euskara batua erabiltzen dute, eta esan beharra dago euskalkiak erabiltzen dituzten tokian tokiko komunikabideek, barietate dialektalekin batera, batua ere erabiltzen dutela. Euskalkiak komunikabide inprimatuetan baino gutxiago erabiltzen dira, bestalde.

- Batua ez diren bestelako euskalkiak (normalizazio eta gramatikalizazio gradua ezberdina da) mendebaleko hizkuntz eremukoak dira edota Bizkian dute egoitza soziala.

- Ziberkomunikabideen portzentaje txiki batek publizitatea onartzen du. Dirulaguntzez sostengaturiko unibertsoa da. Esate baterako, *Goiena.net*ek 2003an beren diru-iturrien %52,83 dirulaguntzetatik zetorren, komunikabideetan euskararen erabilera sustatzeko kontzeptuan. Diru hori Gipuzkoako Foru Aldunditik eta Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailetik etorri zitzaion (Larrañaga, 2005: 152). Elkarte edo baltzu anonimo edo mugatu gutxi daude, eta bestalako figura legalak nagusi dira.

- Komunikabide gehienak beste komunikabide inprimatu edo ikus-entzunezkoetatik datoz. Hala ere, laurdena edo propio interneterako sortuak dira.

- Hala eta guztiz ere, kazetaritza hiritarrari dagokionez, baliabide interaktiboak gutxi erabiltzen dira. Testua nagusi da eta gutxi erabiltzen dira foroak, chatak edo inkestak. Merkatu honetan asko falta da lengoia digitalaren baliabide guztiak erabiltzeko.

---

*Kazetaritza hiritarrari dagokionez, baliabide interaktiboak gutxi erabiltzen dira. Testua nagusi da eta gutxi erabiltzen dira foroak, chatak edo inkestak. Merkatu honetan asko falta da lengoia digitalaren baliabide guztiak erabiltzeko.*

### 4. ETORKIZUNARI BEGIRA

Euskararen egoera komunikabideetan gizartearen erabileratik oso urrun ez dago. Merkatu marjinala, lurraldeetan erabilera oso ezberdina, hala



---

***Euskarazko  
kazetaritzarentzako  
hazkundera, gure ustez, bi  
komunikabide motetatik  
etorriko da: tokian tokiko  
prentsa eta internet.***

eta guztiz ere azken urteotan indartu da pixka bat, komunikabide publikoari (EITB), aldizkariari (*Argia*, *Aldaketa* 16) eta *Berria* egunkariari esker. Hala eta guztiz ere, azken bolada honetako eskasiak ere mantentzen dira: ikus-entzunezko komunikabide nagusiek oso denbora gutxi, de ezer ez, ematen diote euskarari. Ezta deskonexio territorialetan. Adibide bat baino ez aipatzearen, Tele 5k ematen dituen pilota partidak erdaraz komentatzen dira. Euskararen Normalizazioaren Legeak agindutakoa ere ez da betetzen ezta estatuko komunikabideetan ere (RTVE), non euskararen presentzia eskasa den: izenburu batzuen itzulpena, besterik ez.

Euskarazko kazetaritzarentzako hazkundera, gure ustez, bi komunikabide motetatik etorriko da: tokian tokiko prentsa eta internet. Tokian tokiko aldizkariak irakurle euskaldun portzentaia handi bat dute; baita publikitatea ere. XXI. mendearekin batera, doaneko prentsak, egunkariak eta tokian tokiko aldizkariak tokian tokiko egunkariak sortu dituzte. Bestalde, *Goiena.net* bezalako komunikabideek sarearen aukerak aprobetxatzen saiatzen dira. Audientzia gehien duten komunikabideek, bestalde, ez dute beharrezko ikusten euskara komunikazio-tresna gisa erabiltzea.■

## **BIBLIOGRAFIA**

- DÍAZ NOCI, Javier (1994). Gerra aurreko euskal kazetaritza eta hizkuntz ereduak, in *Anuario del Seminario Julio de Urquijo*, vol. 28, nº 3. Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia, 791-835. or.
- DÍAZ NOCI, Javier (2002). Lengua estándar, dialectos y medios de comunicación: el euskera, in *Mediatika*, 9. Donostia, Eusko Ikaskuntza, 161-183. or.
- EUSKALTZAINDIA (1979). Euskara batua, euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak, in *Euskara*, nº XXIV-1. Bilbo, Euskaltzaindia, 103-106. or.
- LARRAÑAGA, José (2005). Información cercana y en mi lengua: *Vilaweb, Vieiros y Goiena.net*, in Sabés Turmo, Fernando (arg.). *Análisis y propuestas en torno al periodismo digital*. Zaragoza, Asociación de la Prensa de Aragón, 149-157. or.
- PAGOLA, Rosa Miren (1984). *Euskalkiz euskalki*. Gasteiz, Eusko Jaurlaritza.
- PAGOLA, Rosa Miren (1991). *Dialektologiaren atarian*. Bilbo, Mensajero.
- PAGOLA, Rosa Miren; Txomin PEILLEN; Pedro DÍEZ DE ULZURRUN (1992). *Euskalki literarioak*. Bilbao, Labayru.
- TORREALDAI, Joan Mari (1994). Hizkuntza aldizkarietan, in *Jakin*, 82, maiatza-ekaina, 53-95. or.
- ZUAZO, Koldo (1988). *Euskararen batasuna*. Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua; Euskaltzaindia.
- ZUAZO, Koldo (2000). *Euskararen sendabelarrak*. Irun, Alberdania.
- ZUAZO, Koldo (2003). *Euskalkiak, herriaren lekukoak*. Donostia, Elkar.
- ZUAZO, Koldo (2005). *Euskara batua. Ezina ekinez egina*. Donostia: Elkar.

## OHARRAK

1. Testu hau 2004-2006. urteetan egindako ikerketa baten emaitza da, eta halako gaurkotze bat egin da 2008. urtean. Ikerketa-proiektuak (“Euskal Herriko komunikabideetan internetek izandako eragina” izenburupean) Euskal Herriko Unibertsitateko dirulaguntza bat izan zuen. Kodea: UPV 00017.323.4-16005/2004.
2. “Ziberkazetaritza” eta “ziberkomunikabideak” hitzak erabiltzen ditugu, “kazetaritza digitala, elektroniko” baino zehatzagoa delakoan. Ikus Díaz Noci, Javier; Salaverria Aliaga, Ramón (koord.) (2003). *Manual de redacción ciberperiodística*. Bartzelona, Ariel, batik bat sarrera.
3. Internetek euskararentzat duen garantizaz mintzatu zen lehen autoreetariko bat kazetari bat izan zen, Luis Fernández. Ikus haren artikulua, Fernández, Luis (1997). Euskararen espazioa informazioaren autobidean. in *Jakin*, 102, iraila-urria. Donostia, Jakinkizunak (29-46. or.), eta bere entsegu-liburua Fernández, Luis (1998). *Etxepare porno. Zibernetika euskalduntzeko metodoa*. Irún, Alberdania.
4. Gaurko Hezkuntza eta Ikerketa Ministerioa. Proiektuaren erreferentzia: BSO2002-04206-C04-03.
5. Salaverria, Ramón (koord.) (2005). *Cibermedios: Impacto de Internet en los medios de comunicación en España*. Sevilla, Comunicación Social Ediciones y Publicaciones.
6. Konparazio bat egitearren, 2005ean (ISBNren arabera) 57.779 liburu argitaratu ziren Espainian, horietatik 44.714 (%77,38) gaztelaniaz eta 13.065 Estatuko beste hizkuntzetan. Hizkuntza horietan nagusi da katalana (8.577 katalanez eta 881 Valentziako barietatean, guztira Espainian argitaraturiko liburuen %14,63), gero gailegoa dator (1.826 liburu, %3,16), eta euskara (1.731 liburu, %3 baino ez). Beste hizkuntzetan (asturierara, aragoiera, aranesa) 50 liburu besterik ez, %0,08%.
7. [http://www.eustat.es/document/datos/euskadi%20en%20cifras/04\\_euskadi\\_cifras\\_c.pdf](http://www.eustat.es/document/datos/euskadi%20en%20cifras/04_euskadi_cifras_c.pdf)
8. Egunkariak dira Berria, eta tokian tokikoak Oarsoaldeko Hitza, Urola Kostako Hitza, Irutxulo-Donostialdeko Hitza, Tolosaldeko Hitza, eta Goiherriko Hitza.
9. Ikus, esaterako, *Bizkaieraren idaztarrak. Deklinabidea eta aditza eta Bizkaierazko joskerara*, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Saila, Gasteiz, 1985 eta 1989.